

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIZTANLERIA

DEFINIZIOAK:

- **BEREZKO HAZKUNDEA:** Lurralde batean zenbat handitu edo txikitu den populazioa arrazoi biologikoengandik. Arrazoi biologikoak **jaiotzak** eta **heriotzak** dira.

Kalkulatzeko: jaiotzak – heriotzak = (jaiotzak ken heriotzak)

Positiboa edo negatiboa izan daiteke:

- **Positiboa:** Getarian 35 haur jaio dira eta 23 pertsona hil dira.

$$35 - 23 = 12 \text{ (berezko hazkundera positiboa da 12 pertsona gehiago daudelako herrian)}$$

- **Negatiboa:** Aian 15 haur jaio dira eta 20 pertsona hil dira.

$$15 - 20 = -5 \text{ (berezko hazkundera negatiboa da 5 pertsona gutxiago daudelako herrian)}$$

- **BENETAKO HAZKUNDEA:** Lurralde batean zenbat handitu edo txikitu den populazioa arrazoi biologikoak (jaiotza eta heriotza) eta **migrazioak** (inmigrazioak eta emigrazioak) kontutan hartuta.

Kalkulatzeko: Berezko hazkundera + inmigrazioa – emigrazio =

Positiboa edo negatiboa izan daiteke:

- **Positiboa:** Biztanleria handitzen denean.

- **Negatiboa:** Biztanleria txikitzen denean.

1. ARIKETA: Beheko taulan, urteko lehen sei hilekoan herri batean izandako jaiotzak eta heriotzak biltzen dira. Erreparatu datuei eta erantzun galderei:

Hilak	Jaiotzak	Heriotzak
Urtarrila	28	22
Otsaila	20	19
Martxoa	16	21
Apirila	17	29
Maiatza	18	18
Ekaina	19	21

- Zer hiletan egon zen **jaiotzarik gehien**? Eta **heriotzarik gehien**?

Jaiotzarik gehien:

Heriotzarik gehien:

- Zer hiletan izan da **negatiboa biztanleriaren berezko hazkundera**?

a) Urtarrila, otsaila eta maiatza.

b) Martxoa, apirila eta ekaina

c) Maiatza

- Eta zer hiletan izan da **positiboa biztanleriaren berezko hazkundera**?
 - a) Urtarrila, otsaila eta maiatza.
 - b) Martxoa, apirila eta ekaina
 - c) Urtarrila eta otsaila
 - c) Maiatza
- Sei hiletan horietan, **handiagotu ala txikiagotu egin da herriko biztanleria**? Zenbat biztanle? (**guztira kalkulatu behar duzue**)

Biztanleria _____ egin da.

Biztanle.

E.A.E.-KO BIZTANLERIA

- **Ezaugarri nagusiak:**

Euskal Autonomia Erkidegoak 2,1 milioi biztanle baino gehiago ditu. Horrela, lurralde txikia izan arren, **biztanle-kopuru nahiko handia** dauka.

XX. eta XXI. mendeetan gure biztanleria hazi egin da. Izan ere, berezko hazkundera eta benetako hazkundera positiboak izan dira.

XX. mendearen bukaeratik, **erkidegoko biztanleria**, batez ere, **immigrazioaren ondorioz hazi** da.

- **Biztanleria-dentsitatea:**

Erkidegoko **biztanleria-dentsitatea** kilometro koadroko 296 biztanlekoa da.

Halako dentsitate handia, neurri batean, **hiru hiriburuek** biltzen duten biztanleria handiaren ondorioa da. Hirurek batera (Gasteiz, Bilbo eta Donostia), euskal biztanleria osoaren %40ra iristen dira.

25.000 biztanle baino gehiago dituzten beste **udalerri handi batzuk** daude, adibidez, Irun, Eibar, Barakaldo, Durango, Leioa...

- **Emigrazioa eta immigrazioa:**

Euskal Autonomia Erkidegoak biztanleria-mugimendu etengabea du. Baina, orain dela urte askotatik hona, **immigranteak emigranteak baino gehiago dira**.

Immigrante horien erdia baino gehiago, beste erkidego batzuetatik hona bizitzera datozen espainiarrak dira. Gainerakoak, batez ere, Latinoamerikakoak, Afrikakoak eta Ekialdeko Europako herrialdeetakoak dira.

2. ARIKETA: Begiratu Euskal Autonomia Erkidegoko mapari. Ea Hiriburuak eta hiriak kokatzeko gai zareten. Aurkitu informazioa Interneten.

DONOSTIA

BILBO

GASTEIZ

BARAKALDO


GETXO

IRUN

Arabako herri handienak:

AMURRIO

LAUDIO



3. ARIKETA: Lotu bere populazioarekin. Aurkitu informazioa interneten.

HIRIA / HERRIA

GUTXI GORABEHERAKO POPULAZIOA

Bilbo	18.000
Barakaldo	10.300
Donostia	78.000
Gasteiz	61.000
Irun	100.000
Getxo	186.000
Amurrio	249.000
Laudio	345.000

4. ARIKETA: Jolastu eta ikasi. Euskal Herriko probintzia eta hiriburuak kokatu. Hiriburuak puntu batekin adierazita daude.

5. ARIKETA: Espainiako autonomien jolasa. Jolastu gutxienez 5 aldiz.